


AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Gipuzkoako Itzuliaren hasiera, bertatik bertara

Urnietako herrigunean aitzin-etapa jokatu da, ostiral honetan, arratsaldeko 18:30ean hasita / 12-13

AIURRI

Ospakizuna, Sorabillan

Igande honetan meza, hamaiketakoa eta goi mailako bertso-saioa / 5

Unai Gaztelumendi
Gipuzkoako Bertsolari
Txapelketan
murgilduko da,
irailaren amaieran / 8-9

Etxeberrieta,
Goiburu eta Buruntza
auzoak jaietan
murgildu dira azken
astetan / 6-7



BERTSO AFARIA

IRAILAK 20, OSTIRALA

20:00. Oianume, Urnieta. 30€

Onintza Enbeita eta Sustrai Colina
Gai-jartzailea: Amaia Agirre

Irailaren 7tik aurrera
txartelak salgai:
Kantoi, Matxo, Oianume, Stop, Aiurri



Antolatzaileak:



Laguntzailea:



Erredakzioa URNIETA

Ikasturte berrirako euskalduntzea izango dute helburu, beraz, hainbat eta hainbat herrikidek, tartean, lerrootako bi protagonistek: Danna Ocampo eta Wen Chen Guangli. Biak ala biak atzerrian jaio arren, Buruntzaldea dute bizileku egun. Aurten go ikasturterako matrikulatuko direnen artean izango dira. Biek ibilbide ezberdinak izan arren, haien lekukotzek nabarmentzeko moduko ezaugarri eta antzekotasunak dituzte, euskara ikasteko buru-belarri murgilduak diren prozesuei dagokienean. Biek ala biek dute haientzat berria den hizkuntza hau ezagutu eta erabiltzeko gai izateko ilusio eta motibazioa. “Nire helburua gutxienez B2 eskuratzea da”, adierazi digu Wen Chen Guanglik. Orain arte jorraturiko bidean sakondu nahi du Ocampok ere. “Ikasten segitu nahi dut. Badakit euskara akademikoa eta kalekoa ez dela hizkuntza bera, baina euskara ikasi nahi dut nire ezagutza eta ikasketa gaitasuna heltzen den lekuraino. B2 eskuratu arte, horraino iristea espero dut”. Orain arteko bidelagunekin berrekin nahi dio euskalduntze prozesuari. “Nire ikaskideekin batera egoten jarraitzea espero dut, taldean denok batera egoteak motibatzen baikaitu”, gaineratu du Ocampok.

“Bizitako esperientzia ederra”

Euskara ikasi nahiz ezagutza eta erabilera maila hobetu asmo dutenak ere ikasturte berri honetan euskaltegian matrikulatzen gonbidatu dituzte. “Ahalgina egitetik dator emaitza. Egunerokoan egindako saiakera eta ahalegin horretan jarritako maitasunetik, tartetxo bat irakurtzeari eskainiz edo hitzak ikasiz, hori guztia barneratzen zoaz. Bizitako esperientzia ederra da bai irakaslearekin, bai ikaskideekin. Hor dago dirulaguntzen arloa ere. A1 urratsean adibidez, %100eko dirulaguntza jaso nuen Usurbilgo Udaletik”, nabarmendu du Dannak.

Bera bezala, ikasketa prozesuan murgildu nahi dutenak animatu ditu Guanglik. Gako garrantzitsutzat jo du bizileku duen Urnietako bertako hizkuntzan trebatzea. “Polita eta bizi-esparrua zabaltzen duen hizkuntza da euskara niretzat. Kanpotik gatozenontzat, euskara ikastea

"Euskara baliabide garrantzitsua da hemen ondo bizitzeko"

Zabaldu berri dute 2024-25 ikasturterako matrikulazio epea eskualdeko euskaltegien. Euskara ikasi nahiz maila hobetzeko aukera izango da Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo euskaltegien



Udalek diruz laguntzen dute ikasleek eginiko ahalegina. Argazkian, Buruntzaldeko euskaltegiako langileak.

baliabide garrantzitsua da hemen ondo bizitzeko”, nabarmendu du.

Euskaraz aritzeko ilusioa

Wen Chen Guangli Txinan jaio zen, Pekinetik ehun bat kilometrora, 14 milioi biztanleko ingurunean. Duela 22 urtetik bizi da inguruotan, “gustura asko”, azpimarratu digunez. Lehenbizi Donostian, Zarautzen tartetxo batean, egun Urnietan.

Pedagogia ikasketak eginak ditu, enpresa-ikasketek lotutako masterra ere egin du. Hizkuntzekiko zaletasun nabarmena du. Bere sorterriko ama-hizkuntzarekin batera, inguruotako beste hainbat menderatzen ditu; egun, hemengo du, ordea, jomugan. Izan ere, beka baten bidez heldu zen Euskal Herrira, Txinan ikasketak amaitu ostean. Enpresa munduan aritu zen lanean. Eremu horretan, “beti euskaraz hitz egiten zuten. Nik gaztelaniaz. Egunen batean euskaraz hitz egiteko gai izateko ilusio handia nuen”.

2020. urtea heldu zen, guztiontzako urte ahaztezina, covid19ak eragindako osasun krisialdiagatik. Txinara itzuli behar izan zuen gaixo zuen aita zaintzera. Euskara ikasteko ilusioa ez zitzaien apaldu une gogor horietan ere eta hantxe, baldintza gogor horietan hasi zen euskalduntzen, bere kabuz. “Euskara ikasten hasi nintzen. Eguneroko gramatika ikasten nuen neuk bakarrik lau orduz”, oroitarazi du. Aita hil zitzaionean, Euskal Herrira itzuli zen, sorterrian hasitako trebakuntzari jarraipena ematera. Euskaltegian matrikulatu zen. “Orain arte asko ikasi eta oso ondo pasa dut irakaslearekin, ikaskideekin”. Hemen, lan munduan murgiltzeko euskara lagungarri eta beharrezkotzat jotzen du. Bestalde, hizkuntzak “asko gustatzen zaizkit betidanik. Euskal kultura polita da”.

Euskarari esker, “integratua”

Ildo horretan, gaineratu digunez, kultura horretan murgiltzeko

“hizkuntza erreminta garrantzitsua da”. Bere motibazio mailaren nondik norakoez galdetuta, argi erantzun du, “helburu bat jartzen dudanean, saiatu eta saiatu jarraitzen dut”. Bidelagun ditu, gustukoa duen euskal historia, euskal dantzak, euskarazko irratia... Euskarari esker, “integratua sentitzen naiz hemen”. Itxuragatik, segituan kanpotartzat jotzen dute eta euskaraz hasten denean, “harritura geratzen dira”. Etor-kizunean, bere sorterriko eta bizilekuko hizkuntzak, txinera eta euskara bateratu eta zerbait egiteko nahia du.

Danna Ocampok ere sorterrian ikasitakoan sakontzen segitu nahi du. Kolonbian jaioa, Donostiara heldu zen lehenbizi amaren aldeko senideen artera. Eguno bikotelaguna ezagutu eta Usurbil du bizitokia egun. “Erizaintzako laguntzailea naiz eta horri lotutako zerbait ikasi nahi nuen hemen. Lanbide Heziketako ziklo bat egin nuen laborategi klinikoari lotutakoa.



“Euskarari esker integratuta sentitzen naiz”, Wen Chenek adierazi digunez.



Danna Ocamporen esanetan, “%100eko dirulaguntza jaso nuen Udaletik”.

Sektore publikoan lan egin nahi nuen”, azaldu digu. Horrekin batera, bikotelagunaren familia euskalduna da eta “ilusioa egiten dit haiekin euskaraz hitz egin ahal izateak eta hemen bizita bertako hizkuntza ezagutzea oso ondo dago”, batez ere, nabarmendu digun moduan, herrikide dituenekin harremana eduki ahal izateko.

Erabilera erronka

Zaila izan zaio ikasketa prozesua baina “pausoz pauso, ezer ez jakitetik hitz batzuk ulertu eta elkarrizketetan erabiltzen hasia oso atsegingarria izan da”. Bidelagunen garrantzia azpimarratu digu Ocampok. “Gustuko dut klaseetara joatea, irakasleekin hitz egitea eta klasekideekin saioak partekatzea, oso lagungarria da. Euskara ez genekien taldekideon artean konplizitatea sortu da. Irakaslea beti egokitu izan da nire egoerara. Bikotelagunak ere asko lagundu dit etxeko lanekin”.

Sare horren garrantzia nabarmendu du Dannak. Izan ere, “nik hemen amaren familia dut baina migrante asko bakarrik datoz”. Euskara ikastea sare hori erakitzen hasteko baliabidetzat ikusten du. Euskalduntze horretan, sare horri begira da Ocampo: “Elkarrizketak euskaraz egin ahal izatea, hortxe dut erronka”.

Buruntzaldeko udalek %70 -%100
artearen diruz laguntzen dute euskara ikastea!

Usurbil



Andoain



Lasarte-Oria



Urnieta



Hernani



Astigarraga



Eus
ka
ra
ikasiz

Erabiliz ikasi,
ikasiz erabili

Jo gogoko duzun euskaltegira eta izena eman!



Buruntzaldea
euskaraz

ANDOAIN

Andoaingo AEK
Plazaola, 2
943 591 704
andoain@aek.eus

LASARTE-ORIA

Muntteri AEK Euskaltegia
Geltoki kalea, 17 behe
607 625 233
lasarte@aek.eus

HERNANI

Hernaniko AEK
Larramendi, 11
943 557 801 - 607 592 864
Zilegi eskola: 663 043 314
hernani@aek.eus

USURBIL

Etumeta AEK
Euskaltegia
Kale Nagusia, 43 behe
607 609 379
usurbil@aek.eus

ASTIGARRAGA

Astigarragako AEK
Kultur etxea. Nagusia, 48
607 610 687
astigarraga@aek.eus

**Lasarte-Oriako
Udal Euskaltegia**

Bekokale bidea, 1
(ambulatorioaren gainean)
943 361 621
euskaltegia@lasarte-oria.eus

**Hernaniko
Udal Euskaltegia**

Karobieta, 63
(ambulatorio zaharra)
943 331 896
euskaltegi@hernani.eus

URNIETA

Urnietako AEK
San Joan, 42 (Elkarteen etxea)
662 338 747
urnieta@aek.eus



euskara.buruntzaldea.eus/dirulaguntzak



Andoaingo Udala
Goiko plaza, 8/g
20140 Andoain



Astigarragako Udala
Foru erparantz
20115 Astigarraga




Hernaniko Udala
Gudarien plaza, 1
20115 Hernani



LASARTE-ORIA
Lasarte-Oriako Udala
Kale Nagusia, 22
20160 Lasarte-Oria



Urnietako Udala
San Joan plaza, 6
20130 Urnieta



Usurbilgo Udala
Jose Martin Sagardia plaza
20170 Usurbil

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Udako oporraldien ondoren, kostak egiten al da martxa hartzea jaien antolaketan?

Estela Cuevas Diez: Ekaina amaitu baino lehen guztia itxita uzten ahalegintzen gara, azken momentuan lotu beharreko kontuak kenduta, besteak beste, bazkarietako txartelak. Bestela, ez gara iristen, uztailean eta abuztuan jendeak oporrak hartzen dituelako.

Esther Toribio Rodrigo: Azken ukituak abuztuaren azken egunetan edo iraileko lehen astean egin ohi ditugu.

E.C.: Behin azpiegitura guztia muntaketa eginda, jendeak indar handiagoarekin hartzen ditu festak. Apur bat konplexua da, bai. Aldiro-aldira, proposamen berriak sortzen ahalegintzen gara, baina ez da erraza.

E.T.: Aurrekontuak ere mugatzen gaitu, urtean hiru festa egiten baititugu. Nolanahi ere, bi kide berri batu zaizkigu antolakuntza-taldera, hona bizitzera etorri den bikote bat. Gogotsu daude eta ederki datorkigu!

E.C.: Festak irauten duten egunetarako dago jendea laguntzeko prest, batik bat. Eta oso normala da hori. Baina aurretiazko antolakuntzan nabari dugu hutsune hori.

Opor osteko ajea baretzen dute, era berean, ezta?

E.C.: Horregatik erabaki genuen festak irail hasieran egitea. Batetik, ez zetorkigulako ondo urteko beste astebururik jaiak antolatzeko. Eta, bestetik, udako oporren ostean, Sanmielak iritsi aurretik, data egokia iruditzen zitzaigulako. Irailaren lehen asteburuan egin izan dugu inoiz. Baina ikusi dugu egokiagoa dela ospakizunak bigarren asteburuaren bueltan egitea, jendea, normalean, oporretatik itzuli delako.

Bost urteko langa pasata datoz aurtun jaiak. Herritarren agendan toki bat egitea lortu al dute, jada, Etxeberri auzoko festek?

E.T.: Bada urtero-urtero etorri ohi den jendea. Horrela, geroz eta jende gehiago ari da batzen gure ospakizunetara.

E.C.: Aurreko batean, esaterako, bizilagun batek esan zidan gure festen egitarauan haurren aisialdiari ere garrantzia ematen zaiola, ederki prestatuta daudela. Pozgarria da horrelako iritziak jasotzea, eta indarra ematen dizu.

“Sorpresak polita izango da aurtengo pregoian”

ESTELA CUEVAS DIEZ, ESTHER TORIBIO RODRIGO ETXEBERRI AUZOKO ELKARTEA Etxeberriko seigarren festak izango dira hilaren bigarren asteburuan. Larunbateko bazkari-tiket salgai daude, jada, Biak kafetegian eta Celtics tabernan



Estela Cuevas Diez eta Esther Toribio Rodrigo Jai Batzordeko kideak. AIURRI

E.T.: Oso plaza eroso da Etxeberri, horrelako jaiak antolatzeko, guztia eskura baitaude, urrutira joan gabe.

Bizilagun daukazue etxeberritarrek Ermotegiko etxebizitzetara etorri berri diren herritarrek. Mugimendu handiago nabari al duzue zuen plazan?

E.C.: Etxeberritik hara bizitzera mugitu naiz ni orain. Bertako plaza beteta egongo zela uste nuen, baina ez da horrela gertatu. Jende asko etorri da kanpotik hona bizitzera, erdia baino gehiago, esango nizuke. Nire ustez, festetan nabaritu da hori.

Adin guztiei begirako egitaraua osatzen ahalegintzen zarete urtero. Nolako izango da aurtengo jaien asteburua?

E.C.: Ostiralarekin ekingo diogu ospakizunari, txupinazoarekin eta apar-festarekin.

E.T.: Eta, adi, sorpresa polita izango da eta aurtengo pregoian!

E.C.: Lehen egunean, gertuko taldeak lotzen ahalegintzen gara. Hala, Otra Kalle musika-taldea izango dugu. Larunbatean, aldiz, DJ-ak izango dira nagusi. Egun osoa hartuko du jaiak

“URNIETAR GUZTIAK ANIMATU NAHI DITUGU ETXEBERRIKO JAIETAN PARTE HARTZERA”

Jai-egitaraua

IRAILAK 13, OSTIRALA

18:30 Txupinazoa.
19:00 Apar jaiak.
20:30 Otra Kalle musika-taldea.

IRAILAK 14, LARUNBATA

11:00 Diana: Txanbolin.
11:30 Ginkana eta jokuak.
13:30 Herri-bazkaria.
Tiket erosteko epea datorren irailaren 9an amaituko da.
16:30 Bingoa.
18:30 Etxeberri Talent lehiaketa.
20:00 Txiki Festa: DJ Flowing.
21:00 Herri-afaria.
22:30 DJ Flowing.
00:00 Saturday night gaua.

IRAILAK 15, IGANDEA

12:00 Txirrista irristakorra.
18:00 Nimu Zirko saioa.

irailaren 14an: goizean, ginkana izango dugu eta Super H-ko kideak etorriko dira, urteko legez. Herri bazkariaren ondoren, bingoan arituko gara. Arratsalde partean, “Etxeberri talent” izango da: askotariko jendea animatzen da, nor bere abilitateak jendaurrean erakusteko, gaueko afaria zein musika-saioa baino lehen. Igandean, berriz, txirrista irristakorra ipiniko dugu eta Urnietako Udalak antolatutako kale-ikuskizunak itxiko ditu festak, Nimu zirko-antzerkiaren, “Pausa” emanaldiak, hain zuzen ere.

Ospakizunetaz beteta dator iraila herrian eta zuek botako duzue lehen txupinazoa. Prest?

E.T.: Beti gaude gogotsu. Muntaketa ere, aktibatu egiten zara, badakizulako jaiak geroz eta gertuago daudela. Oso giro polita dugu gure artean, eta munda guztiari begirako festak antolatu ditugu.

E.C.: Garrantzitsua da azpimarratzea jendeak egiten dituela festak; borondatez antolatzen ditugu guk Etxeberriko jaiak eta jenderik gabe ez da ospakizunik. Horregatik, urnietar guztiak animatzen ditugu!

E.T.: Ederra izango da!

TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI ARANDIA MARRAZKILARIA



Alberto Agirre abesbatzak abestuko du igandeko mezan. AIURRI



Jai Batzordeko hainbat kide, iaz, hamaiketako garaian. AIURRI

Egitaraua

IRAILAK 8, igandea

Koruko Ama Birjinaren eguna, Sorabillako Jai Batzordeak antolatuta.

11:30 Meza, Alberto Agirre abesbatzarekin.

12:15 Burdina elkartearen eskutik, berreskuratu duten Sorabillako erloju zaharra berriro San Martin elizara itzultzeko ekitaldia.

12:45 Hamaiketakoa.

18:00 Bertso jaialdia: Aitor Mendiluze, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus eta Nerea Elustondo. Gai-jartzailea: Aritz Escudero. Punttuka Bertso Eskolak antolatuta, Udalaren laguntzarekin.

Egun osoko ospakizuna iragarri dute Sorabillan

Koruko Ama Birjinaren eguna den irailaren 8an, igandearekin, ospatuko dira Sorabillako jaiak aurten. Hiru ekitaldik osatuko dute egitaraua nagusiki, Alberto Agirre abesbatzak abestutako mezaren ostean: erloju zaharraren itzultzea, hamaiketakoa eta bertso saioa

Xabier Lasa ANDOAIN

Burdina elkarteak berriki berreskuratu eta biziberritu du San Martin eliza-dorreko aintzinako erlojua. 1795ean eraiki zuten erlojua; antzinatasunari dagokionez Gipuzkoan dagoen bigarrena da, eta zokoratuta egon da azken hamarkadetan. Balio handiko ondare historikotzat jotzen dute, eta Burdina

elkartek Gordailu museoa eduki du hilabeteetan, konponketa lanak zirela medio, eta igandean itzultze ekitaldia egingo dute. Hain zuzen, zeregin horretan aritu diren Juan Mari Elosua eta Xabier Alvarez erloju konpontzaileek erlojuaren gaineko azalpenak emango dituzte ekitaldian. Segidan, ohiko hamaiketakoa eskaini zaie au-

zoko helduei. Aitzakia polita izango dute auzoan bizi direnek eta auzoan jaio eta hezi arren egun auzotik kanpoan bizi direnek berriro ere elkartu daitezten eta aldarte gozoan goza dezaten mokadu goxoekin.

Arratsaldean, berriz, bertso jaialdi bikaina iragarri dute, Aitor Mendiluze, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus eta Nerea

Elustondo bertsolariekin eta Aritz Eskudero gai-jartzaile dutela. Punttuka Bertso Eskolak antolatuta du saioa, Andoaingo Udalaren laguntzarekin.

Jaiak, kolokan

Behin behineko Jai Batzordeak antolatu du eguna, Alberto Agirre Abesbatza, Burdina Elkartea eta Punttuka Bertso Eskolarekin elkarlanean. Izan ere, urtetan Sorabillako jaietz arduratu izan den Jai Batzordeak pandemia heldu aurretik iragarri zuen antolaketari utzi egingo ziola, boluntario berriak helduko ziren itxaropena edukita. Ez da halakorik gertatu orangoz behintzat, eta gauzak horrela, gutxieneko jaiet eustea erabaki zuen Jai Batzordeak. Koruko Ama Birjina den irailaren 8ko meza eta hamaiketakoa antolatzea, alegia. Goiz parte hori auzoko zaharre-

mentzat une polita izaten zela uste izanda hartu zuten erabaki hori. Halaxe egin du azken lau urtetan, eta are gehiago, sendotuta dator aurtengo jaiak, ikusten denez. Nolanahi ere, eta behin behineko izaerarekin mugitzen ari den Jai Batzordeak iragane-ko erabakiari eusten dion arren, baliteke aurtengoa izatea antolatzen duen azkena.



Udako jaien jarraipena webgunean

Dozenaka argazki eta bideo, klik bakarrera

ATAL BEREZIA INTERNET SAREAN

www.aiurri.eus



Abuztuaren 4an, igandearekin, lagun ugari igo zen erromeri egunera. AIURRI

Festazale ugari bildu zen Goiburun

Egunez nahiz gaueko ordu txikitan, abuztuko lehen egunetan Goiburu izan zen festazaleen topagunea. Asteburu osoan jende asko hurbildu zen auzunera, dantza giroaz eta txosnaz gozatzera

Erredakzioa ANDOAIN

Udako jaien artean Goiburukoa festazale askoren jomugan dago, ez baitira gutxi asteburu osoan igotzen direnak. Laguntza handikoa izan da, gainera, Udalak bus zerbitzua jarri izana. Jaiak erakargarriak izatearen arrazoia egitarauan aurki daiteke, akaso. Dantzarako, parrandarako eta afaltzeko nahiz bazkaltzeko aukera paregabea eskaintzen du Jai Batzordeak. Eguraldia lagun izanda, gainera, Goiburuko plazatxoaren gune oso aproposa da. Zuhaitzen gerizpean, plazak ez du parekorik.

Aurtengo ospakizuna ere goangarria izan da. Igande iluntzean, esaterako, jendetza hurbildu zen erromeriaz eta sagardoaz gozatzera. Asteburu borobildu zuen, gauez eta egunez jende asko hurbildu baitzen. Antolaketa, gainera, taberna zerbitzu bikaina eskaini ohi du,

otorduak bertan egiteko aukera eskainiz. Egitaraua gauzatze-ko eta txozna zerbitzua eskaintzeko lagun askoren beharra dago eta, urteotan, dozenaka lagun elkartu da SEGA elkar-terearen bueltan. Pozgarria da,

oso, jaiak etorkizun oparoa duen seinale. Finean, egitarau erakargarria, antolaketa bikaina, eguraldi ona eta festarako gogoz dagoen jendea. Hori guztia bat eginda ageri da Goiburun, San Esteban jaietan.



Auzoko gazte ugari jaien hasierako kanpai-errepikan. AIURRI

Ekitaldi ugari asteburu osoan



Kantujira taldekoen emanaldia, jaien hasieran. AIURRI

Kantujira Kanpai-errepika eta suzieren jautiketa amaitu berritan euskal kantagintzak tartea hartu zuen plazan. Herriko Alberto Agirre abesbatzak eta Gora Kaletxiki Bandak hartu zuten parte jaietan.



Lebiton, eta haren ondoen Lebitonen moztorra jantzita zuen hainbat lagun.

Lebiton Pailazoaren emanaldiarekin abiatu zen igandea eta jarraian pala txapelketaren finala jokatu zen. Tartean, bertan ziren haurrek Lebitonekin argazkia ateratzeko aukera izan zuten. Okasioarako, auzoko emakume talde batek Lebitonen moztorra prestatu zituzten.



Ponce-Lopez de Munain eta Borrero-Loidi. AIURRI

Pala txapelketa Jaietako hitzordu seinalatua da bikoteka jokatzen den pala txapelketaren finala. Pilotazale ugari hurbildu zen igande eguerdian. Pare pare aritu ziren bi bikoteak eta, azkenerako, gazteak gailendu ziren. Ponce eta Lopez de Munain izan ziren irabazleak.

Ekitaldiz beteriko bi egun Buruntzako jaietan

Ekitaldiz beteriko bi jai egun antolatu zituen Buruntza Kultur Elkarteak. Dantzaldiak, bertso saioa, antzerkia, errezitaldi musikatua, gastronomia... giro jatorrean ospatu zituzten auzotarrek zein bertaratu ziren kanpotarrek



Jon eta Agurtzane Elustondo anai-arreben erromeri gozo eta biziak ezinbesteko bilakatu dira Buruntzako jaietan. AIURRI

Xabier Lasa ANDOAIN

Sariketen atalean, parte-hartzea handia izan zuten patata-tortillen eta postreen lehiaketa banak, eta baita ere, toka txapelketak.

Antzerkiaren txanda, Barsanti taldearen eskutik heldu zen; "Kale gorrian" kale antzezlanarekin. Etxegabeteen aurkako aldarrikapena zuen ardatz antzezlanak, eta nahikoak izan ziren bi aktore, hainbat pertsonai interpretatuz eta umorea barra-barra erabiliz, aipatu mezua modu egokian zabal zezaten. Horretarako, eszenatoki gisa Gure Atsegina etxea "okupatu" zuten eskura aktoreek, trama garatzeko.

Aitor Mendiluze eta Agin Laburu bertsolariak saio bikoitza egin zuten San Roke egunean, eguerdian lehenbizikoa, eta Gaztañaga sagardotegian antolatuta zegoen bertso-bazkarian bigarrenagoa.

Bi erromeri saio izan dira aurtengo Buruntzako jaietan, Durangaldeko Luhartz taldearekin eta Jon eta Agurtzane Elustondo anai-arrebekin. Zein baino zein dantzagarriagoak suertatu ziren.



Entzuleek gozatu ederra hartu zuten abuztuaren 16ean, Garazi Kamiok hainbat emakume kulturgileen gainean egin zituen kontakizunekin eta Susana Cencilloren akordeoiaren soinuekin. AIURRI

Andoaingo kulturgileen txanda

Andoaingo zenbait kulturgileek Buruntzako jaietan izan duten presentzia ere nabarmentzekoa. Aspalditxotik, ohikoa bihurtu da Olagain Txistularien Elkartearen eta Urki Dantza Taldearen parte-hartzea Soka Dantzan, auzotarrek batera osatzen dutena.

Bestalde, Susana Cencillo akordeoi-joleak eta Garazi Kamio idazleak munduko hainbat emakume abeslari eta artisten biografiak hizpide dituen "Konpasetan: bidaia intimo bat emaku-

meen istorioetan zehar" irakurketa musikatua eskaini zuten, Gaztañaga sagardotegian. Emanaldira bildu ziren entzuleei Kamiok eta Cencillok proposatu zieten bidaiak Ameriketara (Kuban) izan zuten abiapuntu, eta Europako zenbait herrialde zeharkatu ostean, Euskal Herri iritsi zen, hainbat emakume musikari eta artista izanik bidaia horren protagonistak. Bi kultur gile andoaindarren emanaldiak eman zien amaiera dotorea Buruntzako festei.



Beroari aurre eginez, desafio polita egin zuten Etxeberrieta plazan. AIURRI

Lau eguneko ospakizunak Etxeberrietako Jaietan

Alberto Agirre abesbatzak San Inazioaren ereserkia abestu zuen uztailaren 31ko mezan

Erredakzioa ANDOAIN

Jai-eguna eta bezpera, egitaraua aurrera eramateko garaian, egun bereziak baliatu zituen Jai Batzordeak. Uztailaren 27an, larunbatarekin, ekin zioten festen hasiera iragartzen zuen suziriari. Biharamunean, herri-krosa eta omenaldia antolatu zituzten. San Inazio bezpera eta eguna

baliatu zituzten, bestalde, jaien azken traka antolatzeko.

Desafioa, eguzkipean

Goiburuarren eta Etxeberrieta- rren arteko lotura jakina da, bi ospakizunak kateatu egiten baita egutegian. Bero handiarekin bazen ere, desafio polita eskaini zuten.



Mari Kruz Galarraga, Fernando Laskibar eta Julian Lopez, aurtengo omenduak. AIURRI



Pako Arnaiz omendu zuten herri krosa amaitu eta gero. AIURRI

Jon Ander Ubeda URNIETA

Marratzeko eta bertsotan aritzeko teknika menderatzea garrantzitsua da, baina talentua ere eduki behar da. Bi ogibide horietan, behintzat, seguru. Zure bizibidea hortik doa, marraztetik eta kantaztetik.

Bai. Ume-umetatik marrazten ibili naiz. Eskolako txikitako oroitzapen guztietan, esaterako, marrazten ari naiz. Eta, gero, etxean, anaia hasi zen bertsotan eta ekin genion oso kontziente izan gabe. Eskolarteko txapelketetan ondo samar ibiltzen ginen bi anaiak eta tarte handia hartu zuen bertsolaritzak nire bizitzan. Bestalde, Arte Ederrak ikastera joan nintzen Bilbora. Bertsotan jarraitzen dut, ez asteroko jendaurreko saioekin, eta marrazten geroz eta gehiago. Nire bizitzan berriz ere tokia hartzen hasi da. Olatu bat jaitsi denean, bestea beste igo da. Hor nabil, bien artean.

Aiurrin eta tokiko hedabide askotan argitaratzen da zure komiki-tira, "Txokotik zabalera" izenekoa; Garbiñe Ubedak urteetan egin zuen lanari segida eman dio. Komiki-tira egiteak badu, hein batean, bertsolaritzarekin lotura. Bi-hiru kolpetan zerbait kontatu behar baita.

Bai, lotura handia du. Komiki-tira, bertsorekin alderatuta, sorkuntza aldetik luzeagoa da. Diferentzia dago bertsotan feedbacka edo erreakzioa momentukoa dela, eta horren arabera egiten duzun hori moldatu egin daiteke. Badakizulako unean bertan egindakoaren irribarrea, txaloa, txistua, edozer gauza etorriko dela. Komikian distantzia handiagoa hartzen duzu erreakzio horrekin, onerako eta txarrerako.

Karikaturak egitea, bestalde, oso gustuko duzu; karikaturan, berriz, ñabardurak garrantzi handikoak dira.

Jendaurrean, sare sozialetan zabaltzen hasi nintzen. Garai hartakoak oso fisikoak ziren, oso ezaugarri fisikoei lotuta. Bestalde, bertigo pixka bat eman zidan, ez baitakizu pertsona horrek zein harreman duen bere irudiarekin. Eta bueno, kontuz ibili behar da. Orain, gehiago saiatzen naiz pertsona horren barruan arakatzen eta haren esentzia transmititzen. Karikaturekin eboluzionatzeko gogo badu, eta eskaerak jasotzen ditudanean orain dela hamar urte egiten nuena eskatzen didate. Badut borrokatxo bat.

“Bertsogintzan ibilbide bat ixteko garai ona da”

UNAI GAZTELUMENDI KOMIKILARIA ETA BERTSOLARIA

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan ariko da, irailean hasita. Harena da, gainera, txapelketak darabilen irudia. Bertsoa eta komikia, biak, uztartzen dira bere baitan



"Txokotik zabalera" komiki-tiraren egilea da Gaztelumendi. Urteak dira añorgarra Urnietan bizi dela. AIURRI

Eboluzionatzeko gogo bat badut, baina eskaerak garai batekoak dira.

Eskaera horiek lagunei opariak egiteko izaten dira?

Bulego batean lan egiten dut, beste batzuekin partekatuta, eta, erdi-txantxetan edo, Gipuzkoa erdia egin ote dudan adierazi zidaten. Saskibaloit talde bateko jokalariek marratzeko eskaera da jaso dudana azkena. Hamabost mutil gazte marraztu nituen. Horrelako lanak izaten ditut askotan.

Komiki-liburu bat egitea ere zer den badakizu. Anaiarekin batera egin zenuen "Bidea da borroka". Erronka da horri eustea; konplexuagoa dirudi. Mundu oso bat erai-ki behar da. Beste lanetan ez duzun bertigoa sentitu zenuen, orduan?

Bertigo handia eman zidan, bai. Bertsotan ibili naizelako edo, epe luzeko lanek bertigo handia beti eman didate. Epeak bete behar direlako.

Epeak betetzeari diozu beldurra?

Badakit iritsiko naizela; nola da asuntoa. Ondo planifikatu behar da, gero korrika eta presaka ez ibiltzeko. Esan dut komiki-tirak eta bertsoak antz handia dutela, boteprontoan egunean bertan egiten den zerbait delako. Komiki-liburuaren kasuan, ez. Garai hartan, gainera, nire ogibidea ez zen marrazkigintza. Ez nuen soldata hortik ateratzen. Eguneko ordu gehienak beste lan batean ematen nituen, eta txarrenak utzi nituen marrazketarako. Oso ilunpean, oso bakarrik, ordu asko eskaini nizkion lan horri. Gustura pasatutako orduak, baina oso bakarrik, eta ez dakizu zer pasako den. Lan horretan eman duzu urte eta erdi, 110 orrialde marrazten, eta jendeak zer esango ote duen, beldur hori sortzen da. Bertsotan egiten duzun hori txalotu egiten dizute. Eta hau diferentea zen. Astunagoa da, ez nago ohituta, baina, bueno, esperientzia oso positiboa izan zen, eta eta bigarrena egitekotan gara bi anaiak.

Horrelako lan mardul baten ondoren liburua hona ekarriko banizu, zer pasako litzaizuke burutik?

"PAUSO BAT ATZERA EGITEKO GARAIA DA, BAINA TXAPELKETA HONETAN ARITZEKO GOGOA BADUT"

Gaizki pasatzen dut. Oso kritikoa naiz nire iraganarekin, baita oso iragan hurbilarekin ere. Baina bertsotan ere berdina pasatzen zait. Niri jartzen didazu Euskal Herriko Txapelketan bota nuen bertso bat eta lotsa pasatuko nuke. Kostatzen zait nire marrazkiak ikustea, eta, bertsoen kasuan, neure burua ikusi eta entzutea ere kostatzen zait.

Heldu diezaigun bertsolaritzari; Gipuzkoa Bertsotan, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren atariko, herriz herri egiten aritu dira. Bertsozale Elkarteak irudiari garrantzi handia eman dio. Aurtengo irudia zurea da.

Helduen bertso eskolaren 50. urteurrena da, eta hori eraman nahi nuen iruditara. Efemeridea aipatu zidatenean, segituan etorri zitzaidan irudi bat burura. Uztapide ageri da orduko bertso eskolako gazteekin. Gainera, argazkiari erreparatuta, berehala identifikatzen ditugu: Xabier Euzkitze, Anatx urnietarra, Felix Inurrategi, Jon Sarasua, Arantzazu Loidi... Argazki hori neukan buruan, eta hortik tiraka osatu nuen. Nahieran egiteko libre utzi ninduten, eta hori oso eskertzekoa da. Ez da beti aukera izaten, eta oso gustura geratu naiz egin dudan irudi horrekin. Sinplifikazio-lan bat da, karikatutarak dira, baina estetika zehatza jarraituz. Gipuzkoako Txapelketan erabiliko duten irudia ere nik egindakoa izango da.

Eta bertan zuk abestuko duzu.

Halaxe da; ea zenbat saiotan kantatzen dugun.

Dagoeneko prestatzen ari zara? Eta norekin?

Azkenaldian, Jon Altuna Añorgako gaztea ateratu da Gipuzkoako Bertsotan txapelketan. Harekin



Gaztelumendi "Borroka da bidea" komiki-liburua eta "Egon edo ez egon" diskoa eskuetan dituela. AIURRI

aritu naiz, sparring lanetan. Hasi gara, pixkanaka. Dudan pena da ez dudala txapelketarik inoiz prestatu, esaten den moduan, koadernoko lanarekin.

“KOMIKIZALEAK MAIZ DUEN ESTEREOTIPOA FANTASTIKORA JOTZEN DUENA DA”

Emaitza eta norberari ematen diona baino gehiago, niretzat garrantzitsuena da lagunartean elkartzeko, bertsotan egin lasai eta kantatuta joatea txapelketara. Eta horrekin gustura.

Adinean gora joaten garenean bada artistikoki edo lanean sinplifikatzeko joera. Eta lehiarako badago halako urruntzea edo beldurra. Presio erantsia sortu dizu lehiatzeak garai batean horrenbestearaino eragingo ez zizuna?

Umetan, eskola kirolean hasita, sekula ez nintzen batere lehiakorra izan. Badut nire egoa eta ahal dudan ondoen egin nahi dut, jendaurrekoa delako, gai-

“ESKOLAKO OROITZAPEN GUZTIETAN MARRAZTEN ARI NAIZ”

nera. Baina ez naiz inoiz obsesionatu. Orain, txapelketara ailegatuko naiz 36 urterekin, bi ume txikirekin etxean, eta bertsolaritzari ezin eskaini horrelako txapelketa batek eskatzen dituen orduak. Txapelketan parte hartzeko garaian, horregatik egin nuen zalantza. Mezezi al du hainbeste eskaintzea? Eta beste guztiari kentzea? Askotan, sufritzeko ere izaten da. Ikusten dut azkeneko txapelketa gertu dagoela. Hau ez baldin bada... Iruditzen ibilbide bat ixteko garai ona dela. Gainera, beste diskurtso batzuk, beste bertsolari batzuk askoz erakargarriagoak eta askoz indartsuagoak dira, nire ustez, gu baino. Iruditzen zait pauso bat atzera egiteko garaia gertu dagoela.

Hori bai, txapelketa honetan aritzeko gogoia badut. Beste urte batzuetan, zer esan behar horrekin beldurrez aritu nintzen. Iruditzen zait orain garbiago daukadala zer kontatu nahi dudan, zer kantatu nahi dudan. Nirea egitera joango naiz.

Anaiarekin batera egin zenuen komiki-liburuaren izenburua aintzatu hartuta, bidea da borroka, ezta? Jarraituko duzula, alegia, bietan.

Bai, bai. Eta ahal dudan bitartean horretan segituko dut, eta orain tokatzen zait batzuetan lan-marko zabaleko lanak egitea, jende askorengana iritsi daitezkeenak, Euskal Herri mailan argitaratzen diren lanak baitira. Edo kantatzea. Eta hori bukatzen denean jarraituko dut nire komunitateari edo komunitateei kantatzen. Uste dut bietan jarraituko dudala; nori marrazten eta kantatzen ez dakit, baina bietan jarraituko dut.

Zorriker onena, batean zein bestean. Eskerrik asko.

Anatx eta Gaztelumendi kantari ariko dira hilaren amaieran

Hondarribiko saioan abestuko du Unai Gaztelumendik; Andoni Mujikak Andoingo Bastero Kulturgunean

Erredakzioa URNIETA

Udari agur esatearekin batera, badator Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa. Gipuzkoa Bertsotan auresailkapenari lekukoa hartuta, makina bat bertsolari gipuzkoar igoko da oholtza gai-

nera, hilaren 14tik abenduaren 14ra bitarte iraungo duen txapelketan. Hala, etxeko bi protagonista izango dira errimen bueltan datozen hilabeteetan: alde batetik, irailaren 28an abestuko du Urnietan bizi den

Unai Gaztelumendi Arandiak. Hondarribian izango da hitzordua, Itsas Etxea auditorioan. Beste alde batetik, bihamuenean, ariketa berdinean ariko da Andoni Mujika Izagirre "Anatx" urnietarra, etxetik gertu: Andoingo Bastero Kulturgunean abestuko du. Biak ala biak arratsaldeko 17:00etan hasiko dira.

Eskuragari daude, jada, txapelketako saio guztietako sarre-rak, Bertsozale Elkarteak atari digitaal-ean.



"Anatx" Gabirian udaberrian izandako saioan. BERTSOZALE



Urnietako PSE-EEko eta EAJ-PNVko ordezkariak, udaletxearen aurrealdean. UDALA

Urnietako Udal Gobernu taldearen balorazioa

Agintaldiaren lehen urtea igarota, balorazio "oso positiboa" egin dute EAJ-PNVk eta PSE-EEk

Erredakzioa URNIETA

Urtebete igaro da Urnietako Udaleko Gobernu Taldeak, EAJ-PNV eta PSE-EE udal taldeek osatutakoak, bere ibilbidea hasi zuenetik, eta "oso positiboa" da legegintzaldi honetako lehen hamabi hilabeteen balorazioa: "Bi taldeen arteko sintonia oso ona izaten ari da, eta talde-lanaren ondorioz, Udalak gobernu indartsu eta egonkorra du. Hori

emaitzetan ikusten da eta urnietarren bizi-kalitatean eragina du. Gobernu Taldeak konpromisoz eta ilusioz jarraitzen du lanean arlo guztietan, gure herria hobetzeko eta bizitzeko leku atsegina izaten jarrai dezan. Datozen urteetan proiektu eta ekimen berriak aurkeztuko dira, landutako legegintzaldi-plana garatzeko eta ezarritako helburuak lortzen saiatzeko".

Gasolindegia, zabalik

la sei hilabeteko atzerapenarekin izan bada ere, Urnietako gasolindegia erraldoia martxan da Ergoien auzoan. Andoingo eta Urnietako mugan, metro gutxiko tartean, hiru gasolindegia daude egun.



AIURRI



KOMUNITATEA

EAJ-PNV ANDOAIN

Gogotsu ekin diogu lanari

Taldeak gogotsu eta ilusioz ekingo dio lanari, eskuartearen diren lehenetsuneko gizarte erronkei erantzuteko asmoz. Andoingo herriaren egunerokotasunean inplikatzeko jarraituko dugu, ekarpenak eginez eraginkorrak izan nahi dugu, udalgintzari eta eguneroko kudeaketari egonkortasuna eta anbizio gehiago eskaini asmoz.

2024aren hasieran, Gobernu Taldearekin itxiatu akordioaren betetze-maila neurtzeko eta ebaluatzeko garaia ere bada, konpromiso bakoitzaren egoera zein den zehatz ezagutzeko, badira dagoeneko errealitate bilakatu diren ekimenak, besteak beste, tokiko ekonomia sustatzeko martxan ipinitako 150.000 euroko dotazioa duten dirulaguntza larroak; enpresa txiki eta ertainak, merkatari ala ekintzaileentzat zuzendutako; egun eskaera epea zabalik dagoelarik. Beste ekimen ugari lanketa prozesuan dira eta datozen asteetan aurrerapenak izatea espero da.

EAJ-PNVtik modu baikorrean lanean jarraitzeko konpromisoa berresten dugu eta eskua luzatuko diogu Andoainaren alde zintzoki ekarpenak egin nahi dituen orori. Ezinbesteko jotzen dugu iraganeko blokeo inertziaz gainditzea, horregatik, herriaren alde anbizioz jokatzeko hautua egin dugu.

Etxe barrura begira, hilabete garrantzitsuak ditugu aurretik jeltzaleok. Besteak beste, alderdiaren proiektu politikoa eta egitura berritzeko prozesuari ekingo baitzaio. Lan horri ekingo zaio 2024ko Alderdi Eguna igaro ondoren. Irailak 29an ospatuko da egun osoko ekitaldia Forondan, eta urtero moduan, Andoingo Batzokiak autobusa antolatuko du bertara joan-etorria egiteko. Bazkal-otorduak egiteko karpa ere izango da. Informazioa eskatzeko eta izena emateko 688 80 36 65 telefono bidez egin daiteke edota Batzokira bertaratuz.

KOMUNITATEA

MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNA ANDOAIN

Dagoeneko izena eman liteke Andoingo Guduari buruzko ibilaldi gidatuan parte hartzeko

Irailaren 14an goizeko hamaiketan hasiko da Andoingo Guduari buruzko ibilaldi gidatua, Goikoplazan, eta Jon Unanuek zuzenduko du Unanibiko zubian amaiera eman arte. Ordu pare pasatxo Andoingo kale eta txokoetan barrena ibiliz herriaren izan den gertakari historiko larrienetakoaren berri emango dute Manuel Larramendi Kultur Bazkunak antolatutako ibilaldian. Parte hartzeko aurretik izena eman behar da, harrera@larramendibazkuna.eus helbidera idatzi eta parte hartuko duten lagun guztien izen-deitura eta harremanetarako telefono zenbakia emanda. Partaide kopurua mugatua izango da eta ibilaldiko azalpen guztiak euskaraz izango dira.

Aurten 187 urte beteko dira; 1837ko irailaren 14an gertatu zen Andoingo Gudua, lehenengo Karlistaldian. Carlos erregegaia bere gudarostearekin Madrilerantz joana zela baliatuz, O'Donell jeneral liberalak Donostia eta Hernanitik bere agindupeko tropak, 7000 gizon inguru, Andoainera ekarri zituen eta kanpamendua Goikoplazan ipini, inguruan ziren soldadu karlistak Oria eta Leitzaran ibaien bestalderantz uxatu eta bidean izua, hondamendia eta bortxa zabaldu ondoren. Aurrerabide horren albistea jaso bezain laster, Uranga jeneral karlista Nafarroatik batailoi batzuekin etorri eta kontraerasoa antolatu zuen, horretarako 3.500 mutil bildurik. Irailaren 14an jo zuten kontraerasoa karlistek eta O'Donell engainatu ondoren oso borroka gogorrak izan ziren Andoingo kaleetan barrena. Egun hartako borroketan 600-800 lagun inguru hil ziren, gehienak gudaroste liberalakoak, haien artean Karlistaldian borroka egitera Erresuma Batutik etorritako Legio britainiarreko kideak.

Andoingo herriak eta aldirikoez hondamendi handia izan zuten: Andoainaren 55 baserri guztiz kiskali zituzten, bertakoak ihesean jarri ondoren; Urnietan herri ia osoa kiskali zuten, bost etxe besterik ez zen zutik gelditu. Lehenengo karlistaldian izandako gudurik ankerenetakoa izan zen, historiografia ofizialak nahikoa bazterrean utzi izan duena alderdi epiko handirik ez eta herritarren oso oldarraldi gogorra izan zuelako. Izan ere, soldadu karlistekin batera herritarrek izan ziren gogorren jo zutenak gudaroste liberalaren aurka, mendekua eskatuz "ez da kuartelik su ematen dutenentzat" oihuaren oihartzunaz. Horri guztiari buruzko azalpenak jasoko dituzte partaideek, Leitzaran ibaian gora azkena Unanibiko zubian amaitzeraino.

Izena emateko: harrera@larramendibazkuna.eus / 656-782-521.



Andoain 2024

Bertan da!

Iristear...

Eta izugarria izango da!

**Erne irailaren
12ari!!!**

19:15

Gurutze Santuko kaimuturrean (espigoian)





Gipuzkoa taldea Portugalen izan da berriki. FEDERAZIOA

Emakumeen Gipuzkoako Itzuliko lehen etapa, Urnietan

Ostiral arratsalde, 18:00etan hasita, jokatu da 1,8 kilometroko aitzin etapa herriko kaleetan barrena; Ainhoa Ostolaza urnietarra aritu da antolatzaile. 160 partaiderekin abiatuko da aurtengo edizioa

Andoni Urbistondo URNIETA

Emakumezkoen txirrindularitzak Urnieta zipriztinduko du ostiral arratsaldean. Gipuzkoako Itzuliko lehen etapa herriko kaleetan barrena korrituko da seietan hasita, eta herritarrek 160 ziklisten lanaz gozatzeko aukera izango dute, dauden tokitik mugitu gabe. Izan ere, lehen etapa prologo edo aitzin-etapa izango da, erabat herriko kaleetan barrena. Zirkuitu benetan polita, teknikoa, eta tokitik mugitu gabe gozatzeko modukoa.

Ainhoa Ostolaza aritu da antolaketa lanetan. 90. hamarkadan pistako txirrindulari ezaguna izandakoa da Ostolaza, eta egun

Gipuzkoako Txirrindularitza federazioko teknikaria da. Emakumeen arloaz arduratzen da, batez ere, eta Gipuzkoako Emakumeen Itzuliari hirugarren etapa bat gehitu diote aurten. Orain arte bi izan ditu. Aurtengo bigarrena, larunbatean, Ordizian jokatu da, eta hirugarrena eta azkena Elgoibarren.

Ostolaza hiru urte atzera hasi zen lanean federazioan: "Laguntza behar zutela esan zidaten, batez ere emakumeen arloan. Ordurako Santi Osoro, Mikel Irizar, Aitor Aierza, Arritxu Iribar, Abraham Olano eta beste lanean ari ziren. Errepideko lasterketan laguntzen hasi nin-

tzen pixkanaka, emakumeekin jubenil eta kadete mailatan haien selekzioa prestatzen; lasterketa batzuetan parte hartzeko asmoz". Helburua garbia zen: "Emakumeek txikitatik profesioalera iristeko ikustea gai direla, eta lanketa hori txikitatik hasi behar dugula. Mutilak bezala aukera dugula berdintasunaren bidean". Lanketa gogorra izan dela dio Ostolazak, "baina gustukoa dut ilusioa sortzea txikiengand, txikitatik hasita".

Ostolazak emakume kopuruan topatu du arazorik larriena: "Emakume gutxi daude, eta horregatik iruditzen zait funtsezkoa errepideko lasterketak antolatzea:


txikienek lasterketa horiek ikusi ditzaten, eta pausoa ematera anima daitezzen". Irteera batzuk egiten hasi dira neskekin, selekzio mailan: "Iaz hasi ginen, eta aurten ere bitan irten gara Euskal Herritik: Osonako Itzulia egin genuen, Katalunian, ekainean, eta Portugalen orain dela aste batzuk. Osonan kadete eta jubenilek parte hartu zuten, 15-18 urte arteko zortzi neska taldeak".

Talde lana sustatzen dute, lehiatzen duten proba itzulia delako. Ostolaza: "Bidoiak banatu, tarteko helmuga bat irabazteko kideari lagundu... Egun bakarreko lasterketan garaipenak bakarrik balio du. Osonako Itzulian etapa bat irabazi genuen, egun batean jokoan zeuden lau mailotak...". Portugalen bost kadete eta bi jubenilekin egon ziren, eta azken proba Gipuzkoako Itzulia izango da: "160 neskek eman dute izena, pozik gaude. Saiatzen ari gara klubei esaten neskak euren prestakuntza itzuli horiei begira antolatu dezatela, baina ez da erraza, gu Gipuzkoa mailan aritzen garelako. Euskadikoa gainetik daukagu, Espainiakoa bezala, eta horiek neskak deituz gero, neskak haiekin joaten dira. Ulertzekoa da, baina ari gara lanketa bat egiten egoera hobetzeko. Epe ertainean Gipuzkoan nesken zat lehiaketa batzuk finkatzea da erronka".

Gipuzkoan 60 bat ziklistekin ari dira lanean egun, kadete eta jubenil mailakoak, "baina kopurua hazten ari da. Profesionalen Usoa Ostolaza eta Ane Santesteban ditugu, eta horiek oso erreferente onak dira gazteentzat". Beterri bailarako egoeraz galde-tu diogu Ostolazari: "Gutxi samar gara. Futbolak dena jaten du, eta horri buelta ematen saiatzeko eskola kirolek hasiko nintzateke, txirrindularitza sartzen, beste kirol batzuekin batera".

Antolakuntzarekin bueltaka

Gipuzkoako Itzulian 60 bat kadete, 40 bat jubenil, eta 23 urtez azpiko eta elite mailakoak 30na bat ariko dira. "Kopurua apalagoa izango da lasterketa egunean, beti egoten direlako azken umeo bajak". Buruko min batzuk izaten ari da Ostolaza antolakuntza kontuekin: "Kanpotik datozenez Magale ikastetxean izango dute azpiegitura hiru egun bertan egiteko, eta Txoritagain-eko aparkalekua ere itzuliko autoen-



Ibilbidearen mapa. FEDERAZIOA

Etapa osoa herrigunetik atera gabe

Lehen etapa prologo edo aitzin-etapa izango da, erabat herriko kaleetan barrena. San Juan plazan hasiko da, eta Arkale kalea eta Etxeberri auzoko biribilguneraino jaitsi. Goi Mendi zenaren parean errepide nagusia hartu eta Urnieta fruta dendaraino joango dira ziklistak. Han bihurtu bikoitza emango dute ezker aldera, Maximo Yurramendi kalea hartu eta plazaraino bueltatzeko. Batzokiaren pareraino daraman kaskoa igo ostean, Aranzubiko biribilgunea, Urraka auzora jaitsi eta Santa Leokadia kale osoa osatu ostean, azken metroak plazaraino bueltan Geltoki kaletik. Zirkuitu benetan polita, teknikoa, eta tokitik mugitu gabe gozatzeko modukoa.

tzat izango da. Arauak, kamioiak, sariak, bulegoa, aurkezpena, lasterketa atariko bilera... gauza asko lotu behar dira. Federazioak lasterketak antolatzen ditu, baina baita klubek beharrezko asetu ere: autoren bat behar badute lagundu, logistika kontuekin berdind...".

Urnietako etapa pasa arte ez omen da lasaituko: "Detaile txiki asko dira, baimen asko udaltzeko. Nire lehen urtea da zinegotzi jardunean, eta kosta zait prozedura guztia ikastea". Urnietako elkarten arteko elkarlan hobeago bat egotea ere nahi luke Ostolazak; herri bezala sortzen

diren ekitaldietan harreman hobea egotea: “Lasterketako antolatzailea UZE Urnietako Zikloturista Elkarte da, haiekin lotu dut eta gustura nago. Boluntarioak lortzeko ere lanketa ezberdina egin behar da, egun musu truk ez delako inor etortzen. Gorostidi elkarteko jendearekin hitz egin dut, eta laguntza ematen duten boluntario guztiekin halako afari-merienda egingo dugu elkartean. Jendeari trukean zerbait eman behar diozu, laguntzera etortzeko. Musu truk ja inor ez da etortzen”, dio zintzo Ostolazak.

Komeria franko federazioan

Txirrindularitza jarraitzen dutenek jakingo dute komeria franko badela Gipuzkoako Txirrindularitza federazioan azken aldian, herrialdeko Trafiko arduradunak hartutako erabaki polemiko zenbaiten harira. Egoera asko katramilatatu da, eta zuzendaritza taldearen dimisioa etorri da. Ostolazari egoeraren berri emateko eskatu diogu: “Lasterketak ez dira egun batetik bestera antolatzen, aurrez eta denbora askorekin baizik. Bi laster-



Ainhoa Ostolaza. AIURRI

keta landu genituen neguan, baimena eman ziguten hasieran, eta ondoren ezezkoa Gipuzkoako Trafiko arduradunak. Arazoa ez da berria. Baimenak emateko denbora asko hartzen dute, proba hasi bezperaraino sarri, eta tarteka bertan behera ere uzten dituzte. Antolaketa lanetan boluntarioak dabiltza, eta lana musu truk egin eta azken orduan egingako lan guztia pikutara badoa, ba jendea nekatu egiten da. Hori pasa da Gipuzkoako Federazioan”.

Urtebete luze daramate federazioak eta Trafiko arduradunak adostasunerira iritsi ezinik, eta ez

omen da, gainera, irtenbiderik sumatzen, “ez baikara biltzeko gai izan oraindik. Gure ustez baimenak berandu ematen ari dira, ez dugu zergatia ulertzen, eta ez zaigu azalpenik ematen”. Ostolazak dioenez, Araban eta Bizkaian ez dago arazorik Trafikoko arduradunekin, baina Gipuzkoan bai. “Irtenbide erraza du, nire ustez, nahi bada, baina konfliktua dago. Gu saiatu gara egoera bideratzen, baina alferrik. Urtea pasa daramagu iskanbila honetan murgilduta, Jaurlearitza bitartekaritza ere eskatu dugu, baina... Behe mailatan murgilduta dauden familia, herritar asko bete-bete eginda daude egoerarekin, eta arazoa serioa bilakatu da”. Ostolazak itxaropenerako zirrikitua zabaldu nahi izan du, dena den: “Ea hilabete honetan zerbait bideratzen hasten den agintari gorenaren aldetik”.

Esan dugu Txirrindularitza Federazioa umezurtz dagoela, zuzendaritza batzordetik gabe. Nola bideratuko da egoera hori? Ostolaza: “Irailan ikusiko dugu zer gertatzen den federazioan. Lehen deialdian inor ez da aur-



Aurtengo edizioaren afitxa, hiru datekin. FEDERAZIOA

keztu. Bigarren deialdi bat egongo da, eta ikusiko da hautagaitzaren ba ote dagoen. Hauteskunde urtea da federazioetan aurtun, Euskadi eta Espainiakoa,

eta ikusiko da”. Trafiko arduradunarekin sortu den sestra konpontzen ez bada, zaila dirudi inork bere burua aurkeztea federazioa gidatzeko.

Andoaingo emakumeentzako jabekuntza eskola

2024
UDAZKENEKO
IKASTAROAK



ANDOAINGO UDALA



IZEN EMATEA ETA HARREMANA:
jabekuntza.andoain.eus

Andoaingo Udaleko
Berdintasun lantokia.
Tel. 943 300 830, luz. 380 – 385;
berdintasuna@andoain.eus
Andoaingo Udaleko **ATARIA**

Ongizate emozional eta autozainketa lantegiak

OSTEGUNAK. **Urriak 3, 17, 31;**
azaroak 14, 28; abenduak 12.
15:30-17:30, Arrate.
Saioa Garmendia.

Eskalada hastapena

Urriak 4, 5, 11, 12.
OSTIRALAK, 17:00-20:30, LARUNBATAK,
10:00-13:30. Patri Espinar.

Gorputza suspertu eta sasoitu, sortuz eta jolastuz

ASTELEHENAK. **Urriak 7, 14, 21, 28;**
azaroak 4, 11.
17:00-19:00, Urigain. Jaione Albeniz.

Batukada feminista

ASTELEHENAK. **Urriak 7, 21;**
azaroak 4, 18; abenduak 9.
18:00-20:00, Leizaran Institutua.
Botapa Batukada.

Arte garaikidea eta feminismoa

ASTEARTEAK. **Urriak 8, 22;**
azaroak 5, 19;
abenduak 3, 17.
18:00-20:00, Arrate.
Ainara Martin.

Korrikaren munduan murgilduz

ASTEARTEAK ETA OSTEGUNAK.
Urriaren 8tik azaroaren 14ra.
19:00-20:00, Allurralde.
Maria Rengel (Zumeatarra).

Sendabelarrak ezagutzen

I hasiera ASTEAZKENAK.
Urriak 9, 16, 23, 30.
II aurreratua OSTEGUNAK.
Urriak 10, 17, 24, 31.
18:00-20:00, Urigain.
Kris Lizarraga.

Ginekologia naturala eta maitasunezkoa

I hasiera OSTEGUNAK. **Azaroak 7, 14, 21.**
II aurreratua OSTEGUNAK.
Azaroak 28; abenduak 5, 12.
17:00-20:00, Urigain. Clara Gutiérrez.

Brikolaje lantegia

I taldea LARUNBATA. **Azaroak 9.**
II taldea LARUNBATA. **Azaroak 16.**
09:30-14:30, Urigain.
Carmen Melchor.

Autodefentsa feminista

LARUNBATA. **Azaroak 23.**
09:30-14:30, Allurralden. Emagin.

Jatorri anitzetako emakumeen elkargune multikulturala

ASTEARTERO.
16:30-18:30, Urigain. Sorburu.

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

AURKEZPENA

ANDOAIN Aurkezpena

Jabekuntza Eskolako ikastaroen aurkezpen-ekitaldia.
Irailak 6, ostirala.
18:00, Plaza Morea.

URNIETA Lasterketa

Emakumezkoen Gipuzkoako Itzuliko aitzin-etapa.
Irailak 6, ostirala.
18:30, Urnietako herrigunea.

OSPAKIZUNA

ANDOAIN Sorabilla

Egitarau osoa astekariko 5. orrialdean dago irakurgai.
Irailak 8, igandea.
Egun osoko ospakizuna.

ODOL-EMAILEAK

ANDOAIN Odola emateko hitzorduak

Irailak 9, astelehena.
16:30-20:30, Anbulatorioa

IKUSZIRKUS

ANDOAIN Sustrai

Zirkus Konpainiaren ikuskizuna.
Irailak 13, ostirala.
19:30, Bastero.

ANDOAIN Mute

Cia Orain Bi-ren familia ikuskizuna.
Irailak 21, larunbata.
18:30, Zumea plaza.



Aitor Mendiluze. AIURRI

ANDOAIN Bertso saioa, Sorabillako elizaren arkupean

Aritz Eskuderoren esanetara kantuan ariko dira goi mailako lau bertsolari: Aitor Mendiluze, Nerea Elustondo, Amets Arzallus eta Maialen Lujanbio. Udalak, Punttukak eta auzotarrek antolatuta
Irailak 8, igandea. 18:00.

DANTZA

ANDOAIN Geure(R)A

Harrobi Dantza Bertikala.
Irailak 6, ostirala.
19:00, Goikoplaza.

BISITALDIA

ANDOAIN Andoaingo Gudua

'Andoaingo Gudua'ko gertakizunak ezagutzeko ibilaldi gidatua. Beharrezkoa da aurrez izena ematea: harrera@

larramendibazkuna.eus edo 656 782 521.

Irailak 14, larunbata.
Goikoplazatik, Unanibia zubira.

MENDI IRTEERA

ANDOAIN Euskalduna

Panticosa-Pico Bacias Ibilbide luze edo laburrean parte hartzeko aukera. Izen-ematea: 688 684 028 (Whatsapp) edo euskaldunamt@yahoo.es
Irailak 14-15.

ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO**

Odio el verano
Irailak 8, ig. 19:30.
Irailak 9, astel.
17:00, 19:30.
Del revés 2 (Inside out 2)
Irailak 8, ig. 17:00.

Estacion Rocafort

*Estreinaldia
Irailak 14, larunbata. 19:30.
Irailak 15, igandea. 19:30.
Irailak 16, astel.
17:00, 19:30.



SINOPSIS

Del revés 2 (Inside Out 2)

Zuzendaria: Kelsey Mann. **Gidoia:** Meg LeFauve, Dave Holstein. **Herrialdea:** AEB (2024). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Marrazki Bizidunak, abenturak. **Iraupena:** 96 m.

Zinema emanaldiei ekingo diete asteburu honetan

'Inside Out' -en jarraipena eta uda honetan zinemasale ugari erakarri dituen eskaintza. Filma gomendagarria da, oso Riley protagonista nerabezaroan sartuko da eta bere buruak bat-bateko eraberritze bat jasango du, pubertaroko ustekabeko

zerbaiti lekua egiteko: Emozio berriak! Poza, Tristura, Haserrea, Beldurra eta Nazka. Ez dakite oso ondo zer sentitu Antsietate handiarekin agertzen denean. Eta ez dator bakarrik: inbidia, Lotsa eta Asperdura ditu lagun.

IRAILAK 7 16:30EAN
GALARRETA JAI ALAI (HERNANI)

01. PARTIDA / 3 SETERA
SUSPERREGI · ZALDUA VS IRAZU · MARTIRENA

02. PARTIDA / 30 TANTORA
URRIZA VS JUANENEA

03. PARTIDA / 3 SETERA
SEGUROLA · BARRENETXEA IV VS EZKURRA II · LARRAÑAGA

ORNA ERREMONTEA BIZIRIK
K
SUKIA
PAPELERA GIPUZKOARRI
LOZ DE DORRADA, S.A.U.
HAIN GIPUZKOA
Orona
AIURRI

Bertso-afaria Oianumen, Sanmielen atarian

Sustrai Colina eta Onintza Enbeita izango dira aurtengo Sanmielen atariko protagonistak. Hitzordua irailaren 20an izango da. Txartelak asteburu honetan jarriko dira salgai, 30 euroko prezioan: Kantoj, Oianume, Matxo, Stop eta Aiurri eskuragarri

Erredakzioa URNIETA

Sagardoa, txuleta eta bertsoa ederki uztartzen dira Sanmielak gertu direnean. Horretara ohitu dira inguruko bertsozaleak eta, aurtengo ere, Aiurrik eta Poxta Zahar gazte elkarteak bertso-afaria antolatu dute. 30 euroko prezioan bapo afaldu eta bertsoez gozatzeko aukera paregabea izango da, eskarmentu handiko bi bertsozaleen eskutik. Sustrai Colina eta Onintza Enbeita ariko dira Urnietan, Amaia Agirrerren gidaritzapean. Ohi bezala, afaria Oianumen izango da. Txartelak (aukera begetarianoarekin) salgai izango dira, larunbatetik aurrera, hilaren 18ra arte.



2022an kantari aritu ziren Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus Oianume sagardotegian, Amaia Agirrerren esanetara. AIURRI

Ganbara saski taldea

Ganbarako saskibaloia taldeak aste honetan ekin dio denboraldiari. Prestaketa saioen ordutegia honako hau da: astelehenero, asteazkeneko eta ostiralero arratsaldeko 18:00tan hasita. Allurralde kiroldegian egiten dituzte prestaketa-saioak.

Klubetik gonbidapena luzatu dute euren taldeak osatzeko partaideen premian baitira.



AIURRI

Larramendi txapelketaren edizio berria, asteburuan

Santo Tomas Lizeoa, Danena KE eta SD Euskalduna Gorengo Mailako mutilen hiru talderen arteko txapelketa jokatu da larunbat honetan Ubitarte zelaian. Txapelketaren 49. edizioa izango da, eta, egun, denboraldiaren atariko bilakatu da. Aurtengoan, gainera, Hurria-Sahara elkartearekin batera zozketa solidarioa antolatu dute.

2 euroko txartelak salduko dituzte bertan eta azken partidaren urdaiazpikoa zozkatuko dute. Txapelketak pizgarri hori izango du aurtengoan. Izaera solidarioa, gainera.

Irailak 7, larunbata Ubitarte zelaia

- 17:30** Danena KE-Santo Tomas Lizeoa.
- 18:30** SD Euskalduna-Danena KE.
- 19:30** SD Euskalduna-Santo Tomas Lizeoa.

IN MEMORIAM



JON ANDER UBEDA
ANDOAIN

Gurutze Ansa

Ez ziren gutxi izango abuztuaren 8an, Gurutze Ansa Zeberioaren heriotza jakin berritan, gaztaroko oroitzapenak biziberritu zituztenak. Andoainen sortu eta bizi izandakoa, lau familiakide ziren etxean eta dagoeneko laurak hilak dira. Ez da ohikoa hori, zorigaitzoko salbuespena da gurean. Xabier anaia mendizalearen heriotzak arrasto sakona utzi zuen bere garaikideen artean, hogeita hamar urte atzera. Aurreko neguan hil ziren Mikel aita eta Arantxa ama. Haien heriotz-oharren harira trukatu genituen azken mezuak. Oñatin familia osatu eta, egun, bertan bizi zen Gurutze. Abuztuaren utzi gintuen eta, bat-batean, gogora etorri zitzaizkidan Leioako unibertsitatera egindako joan-etorriak. Andoaindarron artean bego Gurutze adiskidea.

ZORION-AGURRAK



URNIETA
Zorionak Angela
Zorionak zure 22. urtebetetzean. Muxu potolo bat bat bihotza!




ANDOAIN
Zorionak Nerea!
Irailaren 3an 12 urte beteko dituzu. Muxu potolo bat etxekoan partetik. Asko maite zaitugu!



ANDOAIN
Leire Nuñez Larrea
Leirek 18 urte bete ditu. Egun handia denontzat. Ospatu ederki, eta izan zaitze zoriontsu.



ANDOAIN
Zorionak Oihan!
Zorionak zure 6. urtebetetzean, Maren eta etxeko guztien partez. Asko maite zaitugu!



URNIETA
Zorionak Lizar!
Irailaren 9an zortzi urte beteko dituzu. Egun oparoa igaro eta gozatu etxekoekin.

ODOL-EMAILEAK

HITZORDUA

Irailak 9, astelehena.

ANDOAIN
Anbulatorioa:
16:30- 20:30.
Joan aurretik deitu: 943 007 884.

ESKELA

Agus REQUEIJO PAZ




2024ko abuztuaren 25ean hil zen, 59 urte zituela

Eskeinitako ardura, gertutasuna, apaltasuna eta goxotasuna eskertuz. Guretzako eredu!



Postari lankideok

Andoainen, 2024ko irailaren 2an



Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Hautzarora egiten du salto Eva Domenech-ek yogarekin izan zuen lehen hartu-emanen lur hartzeko. Horren jakitun izan gabe, behin, etxeko komunera sartu, ispilura begiratu eta "nor naiz?" egin zion galdera bere buruari, hamabi urte zituela. Bada joko gisa hasi zena bizi-estilotzat du orain. Sei urte egingo ditu aurten Saroben, yoga klaseak ematen. Kendu zapatak eta eroso jarri, irakurle. Namasté.

Nola iritsi zinen yogara?

Betidanik, interes handia izan dut gorputzaren eta mugimenduaren arteko loturaren gainean. Bide horretan, tai chi, judo, yoga... ezagutu nituen. Bada horrela sartu nintzen. Finean, meditazio-praktika da yoga. "Lortura" esan nahi du hitzak sanskritoz (hinduismoaren antzinateko hizkuntza) eta, gorputzaren bidez, arnasketaren bidez eta bistaratze-teknika batzuen bidez egiten den miaketa-praktika bat da. "Ni"-aren gaineko bilaketa-prozesuan murgildu nintzen yogaren bidez; nire arreta nabarmenki deitzen zuen horrek. Hala, urte batzuetara, yoga-formakuntzari ekin nionean, nire ezinegon horiei erantzuten zieten teknikak eskuratzen hasi nintzen. Orduan konturatu nintzen uste baino lehenago hasi nintzela bizitzaren misterioaren bilaketan.

Tibeteko mendien magalean kokatzen da yogaren abiapuntua. Jende asko joan ohi da hara hura praktikatzen. Aukerarik izan al duzu zuk?

Orainari ematen zaio garrantzia arte martzialetan, unean unekoari erantzuten zaio, intuizioari pisu handia emanda. Mugimendua eta meditazioa uztartzen dituzten praktikak dira. Yogaren kasuan, Ekialdean sortu arren, urteen poderioz, Mendebaldeko ekarpenekin aberasten joan da. India kolonizatu zuten ingelesek eta beren praktikak sartu zituzten herrialdean. Horrek guztiak eragina izan du yogan, hibridazioa eman da. Orain urte gutxi, gizateriaren ondare izendatu zuten, alegia, mundu osoan da ezaguna, gaur egun.

Galderari erantzunez, ez, oraindik ez. Aukera izan nuen behin, Bartzelonan egin nuen lehen formakuntza. Baina, ez, ez naiz joan, eta, oraingoz, ez dut hara joateko asmo handirik. Baina, batek jakin!

“Kanpora begira bizi gara, presaka, korrika”

EVA DOMENECH YOGA-IRAKASLEA

la sei urte daramatza Saroben yoga-klaseak ematen. Ogibidetzat ez ezik, bizimodutzat ere badu yoga, eguneroko erronkei erantzuteko tresna da berarentzat



Domenech "Ni"-aren gaineko bilaketa-prozesuan murgildu zen yogaren bidez. AIURRI

Duela ia hogeitau urte, zure jaioteritik jauzi eginda etorri zinen Euskal Herrira. Hona etortzearekin batera ekin al zenion yoga irakasteari?

Bartzelonan hasi nintzen klaseak ematen, baina hona etorri nintzenez ekin nion batez ere irakasle jardunari. Donostiako Yoga Sadhanan egin nuen formakuntza, eta bestelako ekarpenak ezagutzeko aukera eman zidan, Bartzelonako tradizioari estuago lotuta baitzegoen. Yoga terapeutikoan ere sakondu nuen, jendearen ondoezetara ondo egokitzen asmatzeko, gorputzaren, adimenaren eta arnasketaren oreka bilatze aldera.

Sei urte daramatzazu Saroben. Zer dute zure klaseek jendeak urterotik errepikatzen?

Gustura egingo nieke nik galdera hori bera! Ikasle-talde egonkor samarra dut, eta ni etorri aurretik ere bazegoen hori. Erremintak ematen dizkiet, nork bere lasaitasuna bilatzeko. Izan ere, azalean gelditzen gara, arretarik jarri ezean. Kanpora begira bizi gara, presaka, korrika. Kontrara, barrura eramaten zaitu yogak; behin zarata guztia baretuta eta tentsioak askatuta, orduan hasten da yoga. Beti esan ohi dut klasea prestaketa dela.

Beti izango dituzu pentsamenduak joan-etorrian, baina ez zara buruhauste horietan horrenbeste denbora kiribilduko. **Aski aldatzen da bat bi hamarkadatan. Zure klase emateko modua ere zerbaitetan aldatu al da denborarekin?**

Klaseak aberasten joan naiz, formakuntzak jaso ahala. Bai buruan, bai gorputzean, desoreka handia dugula nabari dut. Hala, batzuetan hobe da, oso urrutira joan gabe, oinarrira jotzea, gorputz-jarrerak ondo ikastea, luzapenak egitea eta meditazioan sakontzea. **Gorputz mota desberdinekin praktikatzen dute yoga zure klaseetan. Nork bere onura topatzen al dio diziplina honi?**

Hori da, nork bere burua autorregulatzen ikasi beharko luke. Baliabideak ere erabiltzen ditugu klaseetan (kuxinak, zintak...), ariketak behar bezala egiteko, bakoitzaren beharrei erreparratuta, tentsioa zein minak kendu eta oreka bilatzeko xedez. Egozten ikasteko aukera da: egon eta kito, kulturalki ez baitzaigu atsedean hartzen uzten.

Meditazioa, gorputzaren mugimendu leunak, arnasketak... Pultsua egiten dio yogak makina bat estimuluz betetako egungo errealitate azeleratuari.

Mantso joan behar dugu batzuetan, esperientziarik ez badago. Horregatik da garrantzitsua niretzat modu progresiboan egitea lanketa: "Urduri nago", ikustea, eta onartzea, baina lasaitasunetik. Funtsa berdina izango den arren, hori bizitzeko ikuspegia aldatu egingo delako.

"Nola nago? Zein gorputz-jarrerera dut? Zein tentsio? Nola daude nire emozioak?"... Bakoitzak bere burua miaztea da yoga egitea, eta topatzen den hori balioztatzea.

Geldotasun hori aurkitzeko bidean, pisu handia hartzen du isiltasunak. Oasia da yoga, gehiegizko estimuluz eta zarataz bizi garen honetan. Energia jaitsi egiten da klaseko atea gurutzatzen duzenean, eta isiltasuna areagotu, ez baitauek isiltasunez inguratuta egoteko aukera handirik, egun. Ongizatea bilatzeko, pentsamendu eta egoteko modu berriak ereitea da gakoa, kanpora begirako estimuluekin harremantzean, armonia senti dezagun. Hainbeste deskonektatu gara geure buruarengandik, non berriro gure esentziara hurbiltzeko beharra baitugu.

Sarobetik aterata, zein leku du yogak zure bizitzan?

Ahalegintzen naiz yogak ematen didan begirada hori ez galtzen, norberaren perspektiba ez galtzeko, errektibotasuna saihesteko. "Nola harremantzen naiz nire buruarekin? Nola, inguratzen nautenekin?". Horri erreparratzen saiatzen naiz. Inportantea da orainean bizitzea, arreta lantzea alegia, harrikoa egiten ari banaiz, harrikoa egiten ari naiz, eta gero gerokoak. Egun, geroz eta zailagoa da hori egitea.

Hector Leal lagun, Nidra saioa egin zenuten, joan den ikasturtea amaitzeko. Zertan datza yogaren praktika jakin horrek?

Gorputz-jarrerari jaramon egin da, erlaxazio-egoera sakona sortzen laguntzen duen yogaren erreminta klasikoa da, ahots bat gidari dela. Oso aspaldiko musika-instrumentuak ekarri zituen Hectorrek: diapasoiak, tibetar ontziak, Armeniako flauta, krotaloa... Gainera, horrez gain, landareen aldaketa bioelektrikoekin egiten du lan. Landareari eta ordenagailuari konektatutako elektrodo batzuekin, soinua ateratzen dio landareari. Hori guztia erabili genuen klase emateko eta ikasturtea ixteko. **Ikasturte berriari begira, udatik bueltan indarrak batuta itzuli al zara?** Gogo handiz nabil, bai! Oparia da niretzat honetan lan egin ahal izatea, jende zoragarri inguratuta, gainera. Askok estimulatzen nau nire lanak, eta oso esker onekoa da jendea. Finean, nork bere bidea, bere tokia aurki dezake yogan.